

EUSKADIKO KIROL PORTUA SA ENPRESAK KUDEATZEN DITUEN HONDARRIBIA, MOLLA-HONDARRIBIA, DONOSTIA, ORIO, GETARIA, DEBA, MUTRIKU, MUNDAKA, BERMEO, ARMINTZA ETA PLENTZIako KIROL-PORTUETAKO ETA -KAIETAKO PORTU-INSTALAZIOETAN MARINELTZA, MANTENTZE, KONTROL ETA BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

AURKIBIDEA

1. KLAUSULA. AGIRI HONEN EDUKIA, XEDEA ETA ERAGINA.

1.1. Instalazioen deskribapena

2. KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA.

3. KLAUSULA. ENPRESA KONTRATISTAREKIKO HARREMANAK.

4. KLAUSULA. PORTUETAN ETA KAIETAN EMAN BEHARREKO ZERBITZUEN MOTAK ETA DENBORALDIAK ETA EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA, KONTRATU HAU GAUZATZEARI BEGIRA.

4.1. Eman beharreko zerbitzuak, portuen eta kaien arabera.

4.2. Denboraldiak eta zerbitzaldiak.

4.3. Egingo diren lanen deskribapena.

5. KLAUSULA. KONTRATU HONETARAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA.

6. KLAUSULA. KONTRATU HONETARAKO ZIGOR SISTEMA.

7. KLAUSULA. KONTRATU HONETARAKO HOBARI SISTEMA.

8. KLAUSULA. KONTRATUA GAUZATZEA.

9. KLAUSULA. KUDEAKETA-SISTEMA BATERATURA EGOKITZEA



ERANSKINAK

I. ERANSKINA. LANEN DESKRIBAPENA.

II. ERANSKINA. LANGILEEN PRESTAKUNTZAKO OINARRIZKO PLANA.

1. KLAUSULA. AGIRI HONEN EDUKIA, XEDEA ETA ERAGINA.

Edukia

EKPren administrazio-kontseiluak onartuko du Euskadiko Kirol Portua SA-k kudeatzen dituen kirol-portuetako eta kirol-kaietako portu-instalazioen marineltza, mantentze, kontrol eta bezeroen arretarako zerbitzuak kontratatzeke baldintzen eta preskripzio teknikoaren mendekotasun-agiria.

Agiriaren xedea

Agiri honen xedeak honako hauek dira: kontratu hau emateko derrigorrezkoak diren baldintza teknikoak eta eskakizunak definitzea; eta enpresa kontratistak aipatutako baldintza guztiak onartzea.

Kontratuaren eragina.

Zerbitzuaren eskaintza EKPk kudeatzen dituen portu guztientzat izango da. Hain zuzen ere, honako hauek hartzen ditu barne:

- 1- Molla-Hondarribiko kirol-kaia.
- 2- Hondarribiko kirol-portua.
- 3- Donostiako kirol-kaia.
- 4- Orioko kirol-portua.
- 5- Getariako kirol-kaia.
- 6- Debako kirol-portua.
- 7- Mutrikuko kirol-kaia.
- 8- Mundakako kirol-portua.
- 9- Bermeoko kirol-kaia.
- 10-Armintzako kirol-portua.
- 11-Plentziako kirol-portua.

Kontratu hau indarrean dagoen bitartean, EKPk kudeatuko dituen kirol-portu eta kirol-kai guztiak.

1.1.Portu-instalazioen deskribapena

PORTUA/KAIA	AMARRATZ EAK	ANGURA TZEAK	IRAGATEA	PORTIKO AUTOMOTORRA	BESO- GARABIA	ARRANPA- KARROAK	KARENATZEA / LEKUAK	HORNIGAI LUA	LUR-AZALERA (M2)	UR XAFLA (M2)
MOLLA-HONDARRIBIKO KAIA	246		EZ		5 tona	EZ	BAI/4		3.408,00	48.000,00
HONDARRIBIKO KIROL-PORTUA	672		BAI	32 tona	5 tona	EZ	BAI/50	BAI	50.964,00	62.000,00
DONOSTIAKO KIROL-KAIA	370+40		BAI		5 tona	EZ	BAI/12	BAI	1.423,50	8.301,00
ORIOKO KIROL-PORTUA	290		BAI	32 tona		EZ	BAI/12	BAI	41.148,00	20.045,40
GETARIAKO KIROL-KAIA	285		BAI	32 tona		EZ	BAI/6	BAI	6.565,00	17.296,00
DEBAKO KIROL-PORTUA	68		EZ		5 tona	EZ	BAI/3		1.200,00	3.500,00
MUTRIKUKO KIROL-KAIA	301		BAI		5 tona	EZ	BAI/5	BAI	7.606,00	39.400,00
MUNDAKAKO KIROL-KAIA		179	EZ			EZ				7.700,00
BERMEOKO KIROL-PORTUA	346	30	BAI	70 tona	5 tona	EZ		BAI	15.100,00	33.016,00
ARMINTZAKO KIROL-PORTUA	40	86	EZ		5 tona	BAI/	BAI/4		90,00	7.931,00
PLENTZIAKO KIROL-PORTUA	177		EZ		6 tona	BAI/1	BAI/4		40,00	9.374,00

2. KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA.

Kontratu honen hasierako epea 2 URTEKOA izango da eta kontratu honen Klausula Administratibo Partikularren Agirian ezarritako terminoetan luzatu ahal izango da. Epea kontratua sinatuko den egunean hasiko da zenbatzen.

3. KLAUSULA. ENPRESA KONTRATUGILEAREN ETA KONTRATISTAREN ARTEKO HARREMANAK

- 1- Kontratua gauzatzea koordinatzeko, enpresa kontratistak pertsona arduradun bat izendatuko du. Arduradunak enpresa kontratista enpresa kontratugilearen aurrean ordezkatuko du, zerbitzua emateko kostua igo gabe.
- 2- Pertsona hori ez da izango kontratu honen xede diren marinel-tza, mantentze, kontrol eta bezeroen arretarako zerbitzuetako langile arduradunen taldeko kide.
- 3- Arduradunak aurkitzeko moduan egon behar izango du beti, telefono mugikor bidez edo antzeko baten bidez. Oporrak edo lanetik aldentzeko baimena hartzekotan, garaiz utzi beharko du ordezkatu duenari buruzko abisua.
- 4- Kontratua hasi aurretik, aipatutako ordezkariak EKPko arduradunekin egingo diren aldizkako bisiten eta bileren egutegia adostuko du enpresa kontratugilearekin; *a priori*, hilabetean behin egingo dira. Bilera eta bisita guztietan adostutakoa idatziz jasoa utziko da eta akta idatziko da. Hori bertaraturatuko onartu eta sinatu beharko dute.

Horretaz gain, komunikazio jarraitua izateko aukera emango da, lanak ondo burutzeko. Edozein alderdik behar duenean, beharrezko bilkurak antolatuko dira programatutako bileren artean.

Bilera eta bisita horietan, enpresa kontratistaren ordezkariak ezarritako dokumentu-euskarriak entregatuko ditu eta, besteak beste, honako gai hauek jorratuko ditu EKPko arduradunekin:

- a. Laneko parteak.
- b. Zereginen azterketa.
- c. Ordu-tegiak eta zeregin bakoitzerako esleitutako langileak.
- d. Gertakarien jarraipena.
- e. Erabiltzaileen keak edo erreklamazioak.
- f. Ekipoen, erreminten eta tresneriaren egoera.
- g. Ekipo eta instalazioak ikuskatzea eta mantentzea.
- h. Enpresa-jardueren koordinazioa.
- i. Marinelen prestakuntza-programaren jarraipena.
- j. Dagokionean, langileen autoebaluazioaren emaitzak.
- k. Dagokionean, larrialdi-simulakroen emaitzak.



Ordezkarria izango da enpresa kontratistaren arduradun zuzena EKPrek eskaeren eta eskakizunen aurrean eta berak ezarriko ditu langileen lan-jarraibideak, berak emango du “Harrera eskuliburua” eta berak diseinatuko du langileen prestakuntza-plana, EKPk arduradunekin batera.

Era berean, bera arduratuko da langileei egindako ebaluazioen emaitzen arabera EKPk ikusten dituen beharrak martxan jartzeaz (prestakuntza, motibazioa, ohartarazpenak, espedienteak eta abar), eta bera izango da bere ardurapean dituen langile guztiei jarraibideak helarazteko arduradun zuzena. EKPk aldian behin ebaluatuko du jarraibide eta premia horiek kontratuaren xede diren langileei behar bezala helaraztea.

4. KLAUSULA. PORTUETAN ETA KAIETAN EMAN BEHARREKO ZERBITZUEN MOTAK ETA DENBORALDIAK eta EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA, KONTRATU HAU GAUZATZEARI BEGIRA.

4.1.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK

Zerbitzua behar bezala emateko, enpresa kontratistak kontuan izan beharko ditu portu edo kai bakoitzeko zerbitzuen ezaugarriak eta tipologia:

Plentziako kirol-kaia:

Eman beharreko zerbitzua: Noizean behin, portuko marineltza-zerbitzua, bezeroen arreta, instalazioen mantentze eta kontrol-lanak, eta ontziak igotzea, uretaratzea eta lehorreratzea.

Armintzako kirol-kaia:

Eman beharreko zerbitzua: Noizean behin, portuko marineltza-zerbitzua, bezeroen arreta, instalazioen mantentze eta kontrol-lanak; ontziak igotzea, uretaratzea eta lehorreratzea.

Bermeoko kirol-kaia:

Eman beharreko zerbitzua: Portuko zerbitzua, marineltza / bezeroen arreta, 24 ordu baino gutxiagoko txandetan, asteko bi edo hiru lanaldi oso, guztira (gainerako asteko lanaldia barne-kudeaketari eta lehorreratzeari lotutako lanekin osatuko da); goi-denboraldian, berriz, zerbitzuak asteko egun guztietan emango dira, jaiegunak barne. 4.2 puntuarekin bat.

Mundakako kirol-portua.

Eman beharreko zerbitzua: Noizean behin, portuko marineltza-zerbitzua, hau da, bezeroen arreta, instalazioen mantentze eta kontrol-lanak.

Mutrikuko kirol-kaia:

Eman beharreko zerbitzua: Portuko zerbitzua, marineltza / bezeroen arreta, 24 ordu baino gutxiagoko txandetan, asteko bi edo hiru lanaldi oso, guztira (gainerako asteko lanaldia barne-kudeaketari lotutako lanekin osatuko da); goi-denboraldian, berriz, zerbitzuak asteko egun guztietan emango dira, jaiegunak barne, 4.2 puntuan ezarritakoari jarraikiz.

Debako kirol-portua:

Eman beharreko zerbitzua: Noizean behin, portuko marineltza-zerbitzua, bezeroen arreta, instalazioen mantentze eta kontrol-lanak, eta ontziak igotzea, uretaratzea eta lehorreratzea.

Getariako kirol-kaia:

Eman beharreko zerbitzua: Portuko marineltza-lanak egiteko / bezeroen arreta emateko, urteko egun guztietan, lanaldi osoan, 4.2 puntuan ezarritakoari jarraikiz.

Orioko kirol-portua:

Eman beharreko zerbitzua: Portuko marineltza-lanak egiteko / bezeroen arreta emateko, urteko egun guztietan, lanaldi osoan, 4.2 puntuan ezarritakoari jarraikiz.

Administrazio-langileen zerbitzua 4.2 puntuan ezarritako moduan.

Donostiako kirol-portua:

Eman beharreko zerbitzua: Portuko zerbitzua marineltza-lanak egiteko / bezeroen arreta emateko, 24 ordu baino gutxiagoko txandetan, egunero, igandeetan eta jaiegunetan izan ezik; goi-denboraldian, berriz, egun guztietan emango dira zerbitzuak; 4.2 puntuan ezarritakoari jarraikiz.

Hondarribiko kirol-portua:

Mollako kaia:

Eman beharreko zerbitzua: Portuko marineltza-zerbitzua, noizean behin instalazioen mantentze- eta kontrol-lanak egiteko, baita garabiaren zerbitzua eta lehorreratze-zerbitzua emateko ere.

Hondarribiko kirol-portua:

Eman beharreko zerbitzua: Portuko marineltza-lanak egiteko / bezeroen arreta emateko, urteko egun guztietan, lanaldi osoan, 4.2 puntuan ezarritakoari jarraikiz..

Hondarribiko kirol-portuko harrera-lekuak Mollako kaiko bezero edo erabiltzaileei ere emango die arreta.

4.2. DENBORALDIAK ETA ZERBITZUA EMATEA.

Kontratutako zerbitzua astelehenetik igandera bitartean, jaiegunetan barne (abenduen 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an izan ezik) emango da, aurreko klausulan zehaztutakoaren arabera, hau da, portu bakoitzean eman behar diren zerbitzuen ezaugarri eta tipologiaen arabera. Halaber, aintzat hartuko dira jarraian zehaztutako denboraldiak. Ordutegia enpresa kontratugileak eta enpresa kontratistak kontratua legezatu baino lehen zehaztuko dute, enpresa kontratistak bere eskaintzan aurkeztutako proposamenean oinarrituta.

Enpresa kontratistak, enpresa kontratugilearekin adostu ondoren, ordezkatu beharko ditu lanera etorri ez diren langileak, arrazoiak edozein dela ere (oporrak, laneko baja, baimenak, lanetik kanpora joatea eta abar). Horretarako, ordezkatu behar den langilearen lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaituta dagoen langile bat ekarriko du.

Orioko portuko administrazio-langileek gainerako portuetan zeregin horietan lagunduko dute, beharrezkoa izanez gero.

Xede horrez, portu bakoitzeko, honako gutxieneko ordu kopuru eta langile kopuru hauek zehazten dira, zerbitzua emango den denboraldien arabera:

Plentziako eta Armintzako kirol-portuak:

Marineltza-zerbitzua, egunero, igande eta jaiegunetan izan ezik; zerbitzuak portu bietan emango dira, 4. eta 1. klausuletan adierazitako tipologia eta deskribapenaren arabera; gutxieneko ordu kopurua hauxe izango da:

- Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik eta 14:00etatik 17:00etara.
- Larunbatetan: 09:00etatik 13:00etara.

Bermeo eta Mundakako kirol-portua:

Behe-denboraldia: 09/16tik 06/14ra

Marineltza-zerbitzua, egunero, igande eta jaiegunetan izan ezik; zerbitzuak portu bietan emango dira, 4. eta 1. klausuletan adierazitako tipologia eta deskribapenaren arabera; gutxieneko ordutegia hauxe izango da:

- Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik eta 14:00etatik 17:00etara.
- Larunbatetan: 09:00etatik 13:00etara.

Goi-denboraldia: 06/15etik 09/15era

Marineltza-zerbitzua, asteko egun guztietan, igande eta jaiegunak barne; zerbitzuak portu bietan emango dira, 4. eta 1. klausuletan adierazitako tipologia eta deskribapenaren arabera; gutxieneko ordu kopurua hauxe izango da:

- Astelehenetik ostiralera: 08:30etik 14:00etara eta 15:30etik 21:00etara.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan: 08:30etik 14:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

Ezarrirako orduetan, Bermeo eta Mundakako kaietan emango da zerbitzua, enpresa kontratugile eta enpresa kontratistaren artean adostutako ordutegi eta maiztasunarekin bat, enpresa kontratistak bere eskaintzan egindako proposamena oinarri hartuta.

Mutrikuko eta Debako kirol-portuak:

Behe-denboraldia:

10/01etik 04/30era

Marineltza-zerbitzua, egunero, igande eta jaiegunetan izan ezik; zerbitzuak portu bietan emango dira, 4. eta 1. klausuletan adierazitako tipologia eta deskribapenaren arabera; gutxieneko ordu kopurua hauxe izango da:

- Astelehenetik larunbatera: 09:30etik 16:30era.
- Larunbatetan: 09:00etatik 13:00etara

Goi-denboraldia:

05/01etik 09/30era

Marineltza-zerbitzua, asteko egun guztietan, igande eta jaiegunak barne; zerbitzuak portu bietan emango dira, 4. eta 1. klausuletan adierazitako tipologia eta deskribapenaren arabera; gutxieneko ordu kopurua hauxe izango da:

- Astelehenetik ostiralera: 08:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 21:30era.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan: 08:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 21:30era.

Ezarrirako orduetan, Mutriku eta Debako kaietan emango da zerbitzua, enpresa kontratugile eta enpresa kontratistaren artean adostutako ordutegi eta maiztasunarekin bat, enpresa kontratistak bere eskaintzan egindako proposamena oinarri hartuta.

Getariako kirol-kaia:

Marineltza-zerbitzua (marinel arduraduna eta marinel harreragilea) egunero (astelehenetik igandera), jaiegunak barne, abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an izan ezik.

Behe-denboraldia:

10/01etik 04/30era

Denboraldian zehar zerbitzua emango den gutxieneko ordu kopurua:

- Astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 19:00etara.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan: 08:00etatik 15:00etara.

Goi-denboraldia:

05/01etik 09/30era

Denboraldian zehar zerbitzua emango den gutxieneko ordu kopurua:

- Astelehenetik ostiralera: 07:30etik 21:30era.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan: 07:30etik 21:30era.

Orioko kirol-portua:

Marineltza-zerbitzua (marinel harreragilea) egunero (astelehenetik igandera), jaiegunak barne, abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an izan ezik.

Administrari-zerbitzua astelehenetik larunbatera, goizez, jaiegunetan izan ezik.

Behe-denboraldia:

10/01etik 04/30era

Denboraldian zehar zerbitzua emango den gutxieneko ordu kopurua:

- Astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 19:00etara.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan: 08:00etatik 15:00etara.

Goi-denboraldia

05/01etik 09/30era

Denboraldian zehar zerbitzua emango den gutxieneko ordu kopurua:

- Astelehenetik ostiralera: 07:30etik 21:00etara.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan: 07:30etik 20:00etara.

Donostiako kirol-portua:

Behe-denboraldia:

10/01etik 04/30era

Denboraldian zehar zerbitzua emango den gutxieneko ordu kopurua:

- Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.
- Larunbatetan: 10:00etatik 13:00etara

Goi-denboraldia

05/01etik 09/30era

Denboraldian zehar zerbitzua emango den gutxieneko ordu kopurua:

- Astelehenetik larunbatera: 09:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.
- Igande eta jaiegunetan: 10:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

Hondarribiko kirol-portua:

Marineltza-zerbitzua (marinela) egunero (astelehenetik igandera), jaiegunak barne, abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an izan ezik.

Administrazio-zerbitzua, egunero (astelehenetik igandera), jaiegunak barne, larunbata, igandea eta jaieguna ez den egunean ezarritako asteko atsedenaldiarekin; maiatzaren 15etik irailaren 15era: 10:30etik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara.

Behe-denboraldia:

10/01etik 04/30era

Denboraldian zehar zerbitzua emango den gutxieneko ordu kopurua:

- Astelehenetik larunbatera: 08:00etatik 19:00etara.
- Igandeetan eta jaiegunetan: 08:00etatik 18:00etara.

Goi-denboraldia:

05/01etik 09/30era

Denboraldian zehar zerbitzua emango den gutxieneko ordu kopurua, igandeak eta jaiegunak barne: goizeko 07:30etik gaueko 21:30era

Hondarribiko porturako ezarritako orduetan, Molla-Hondarribiko kaian emango da zerbitzua, enpresa kontratugile eta enpresa kontratistaren artean adostutako ordutegi eta maiztasunarekin bat, enpresa kontratistak bere eskaintzan egindako proposamena oinarri hartuta.

Zerbitzuak eskaintzen diren ordutegia zehazteko, urteko denboraldi desberdinetan eguzki-argiaren orduak kontuan hartuko dira eta ahalik eta gehienez moldatu beharko du ordutegiak horietara.

Langileek goi-denboralditik kanpo hartuko dituzte oporrak, portu eta kai guztietan.

Portuen hurbiltasun geografikoaren arabera, enpresa kontratistak kontratu honetara esleitutako giza taldeko langile bat edo gehiago izendatuko ditu **guardia-zaintalde** gisa (24 ordu). Langile horiek egoera berezi eta ezohikoetan jarduteko beharrezkoa den prestakuntza edukiko dute eta eskaintzan adieraziko dira langile horiei dagozkien betebeharrak (erantzuteko denbora eta abar) nahiz eskubideak (kontraprestazioa, besteak beste).

Enpresa kontratistak bere eskaintzan aurkeztutako **lan-programa** oinarri hartuta (egutegia, ordutegiak, txandak, langileak, zereginak eta abar) emango dira zerbitzuak. Lan-programa hori enpresa kontratugilearekin adostuko da, kontratua formalizatu aurretik.

Kontratugileak **gutxienez 24 orduko aurrerapenez zerbitzu bereziak eta ohiz kanpokoak** behar izanez gero, enpresa kontratistak **eskaintzan proposatutako orduko batez besteko prezioan** eman beharko ditu, hau da, beste kontzeptu berezi batzuk kontuan hartu gabe, besteak beste, kategoria, antzintasuna, garraioa, plus bereziak, mozkin industrialak eta abar. Esleipendunak eskaintzan salbuespenezko zerbitzuei arreta eskaintzeko proposatutako gehieneko erantzute-denbora bete beharko du, bai ordutegi arruntetan, baita ohiz kanpokoetan (gauetan eta jaiegunetan) ere.

4.3. EGINGO DIREN LANEN DESKRIBAPENA.

Agiri honekin batera doan I. ERANSKINEAN zerbitzu bakoitzari dagozkion lanak zerrendatu dira, oro har.

Portu edo kaiaren arabera erabakiko da lan bakoitza burutu behar den ala ez, instalazioen ezaugarriak kontuan hartuta; ezaugarriak agiri honen 1.1 puntuan zehaztu dira.

5. **KLAUSULA. KONTRATU HONETARAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA.**

Kontratataren betebeharra izango da bere ardurapean dauden langileen oinarrizko prestakuntza-plana betetzea, baldintzen agiri honen II. ERANSKINEAN ezartzen denaren arabera, eta enpresa kontratugileak eta kontratistak adosten duten epean eta moduan egingo du. Horretarako, urte bakoitzeko azaroan, hurrengo urterako prestakuntza-programa ezarriko da.

Kontratu honek irauten duen bitartean lanpostu batean sartzen diren langile guztiek II. ERANSKINEAN ezarritako oinarrizko prestakuntza jasoko dute, enpresa kontratugileak eta kontratistak adosten duten epean eta moduan, curriculumaren eta prestakuntza-beharren arabera. Horretaz gain, enpresa kontratugilearen ordezkariak **harrera-eskuliburu bat** emango du eta bertan zehaztuko dira lan, segurtasun, laneko arriskuen prebentzio, ingurumen-neurri, bezeroen arreta eta abarrekin erlazionatutako jarraibide guztiak, kasuan-kasuan lana ondo garatzeko beharrezkoak direnak.

Prestakuntza Euskadiko Kirol Portua SAREN langileek ikuskatuko dute.

Era berean, Euskadiko Kirol Portua SAK une bakoitzean eman beharreko berariazko prestakuntza erabaki ahal izango du, bere irizpideari jarraikiz eta bere helburu estrategikoa eta kudeaketa-helburuak betez; era berean, prestakuntza emango duen enpresa aukeratu edo zehaztu ahal izango du eta enpresa kontratistak prestakuntza bere kontura eman beharko du. Enpresa kontratugileak eta kontratistak adostuko dituzte prestakuntza eskaintzeko epea eta modua, zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta.

Enpresa kontratugileak larrialdi-simulakroak egiteko urteko plana zehaztuko du langileak trebatzeko. Enpresa kontratugileak koordinatuko du plana.

6. **KLAUSULA. KONTRATU HONETARAKO ZIGOR SISTEMA.**

Zigor-sistema bat ezarri da kontratu honetarako, kontratua arautzen duen administrazio-klausula berezien agirian xedatutakoari jarraikiz.

7. **KLAUSULA. KONTRATU HONETARAKO HOBARI SISTEMA.**

Enpresa kontratugileak hobari-sistema bat ezarri ahal izango du kontratu honetarako.

Hobariak enpresa kontratugileak ezartzen dituen urteko helburuen betetzearen arabera emango dira. Hobarien aplikazioa eta hobariak emateko modua eta baldintzak enpresa kontratistari denbora nahikoarekin jakinaraziko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin eta kontuan har ditzan.

8. **KLAUSULA. KONTRATUA GAUZATZEA.**

Kirol-portuetan marineltza-, mantentze-, kontrol- eta bezeroen arretarako zerbitzuen eskaintzan sartzen dira dokumentu honen 4.3 klausulan zehaztutako zeregin guztiak.

Zerbitzuak Euskadiko Kirol Portua SAK kudeatzen dituen Hondarribia, Molla-Hondarribia, Donostia, Orio, Getaria, Deba, Mutriku, Mundaka, Bermeo, Armintza eta Plentziako kirol-portu eta -kaietako instalazioetan emango dira; hala ere, enpresa kontratugileak hala eskatzen badu, enpresa kontratistak portu edo kai jakin baterako kontratatutako langileek beste batean laguntza-zerbitzuak eman ahal izango dituzte eta aldi baterako eta zerbitzu jakin batzuetara lekuz aldatu ahal izango dira langile horiek. Aipatutako zerbitzuen ondoriozko joan-etorri, dieta eta abarren gastuak aurkeztutako eskaintza ekonomikoan barne hartuko dira. Enpresa kontratugileak ez du kopuru gehigarriak ordainduko kontzeptu horregatik.

Enpresa kontratugileak kontratazio-prozedura jakitera eman ondoren kontratuaren oinarri erabilitako baldintza teknikoaren agiria idaztean aintzat hartutako zerbitzuetan egin beharko lituzkeen **gehikuntza, murrizketa edo aldaketa** guztiek kontratuaren esleipen-prezioaren aldaketa ekarriko dute. Prezio hori kalkulatzeko, enpresa kontratistak bere eskaintzan proposatutako batez besteko orduko prezioa hartuko da oinarri, hortaz, ez dira kontuan izango beste kontzeptu batzuk, hala nola langilearen kategoria, antzinasuna, garraioa, plus bereziak, mozkin industrialak eta abar.

Enpresa kontratugileak enpresa kontratistari egokitzat jotzen dituen jarraibideak eta gomendioak emango dizkio, lanak egiteko modua edo kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko modua zehazte aldera.

Enpresa kontratugileak enpresa kontratistaren eskura jarriko ditu kontratatutako zerbitzuak emateko beharrezkoak diren ondasunak, makinak, bitartekoak eta tresneria. Kontratuaren indarraldia amaitzean, kontratistak guztiak erabiltzeko prest itzuli beharko ditu, enpresa kontratugileak matxura, narriadura edo hondatzea baieztatu eta ontzat ematen duenean izan ezik.

Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du bere langileek Euskadiko Kirol Portua SAREN ondasunetan gerta daitezkeen kalteen ondorioz sortzen diren fakturak ordaintzeko, betiere langileei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik gertatu badira (makinak eta tresneria gaizki erabiltzeagatik, galtzeagatik, zerbitzua gaizki emateagatik eta abar).

Uniformea derrigorrez erabili behar dute langileek. Enpresa kontratugileak, indarrean dagoen araudiaren arabera, uniformearen ezaugarriak eta bertan jarriko den logoa erabakiko ditu eta kontratistaren kontura izango da zerbitzuko langileen laneko arropa garbitzea. Langileek itxura zaindu beharko dute.

Zerbitzua ematen ari diren langileek erabiltzaileei harrera atsegina eta zuzena egingo diete. Halaber, langileen arteko harremanak eta jarrerak atseginak eta egokiak izateaz arduratuko dira.

Kontratua hasi aurretik eta amaitu ondoren, material, bitarteko, tresna, altzari eta ekipu teknikoaren inbentario bat egingo da. Zerbitzuak ondo funtzionatzeko eta laneko segurtasun eta osasun-baldintzak betetzeko, enpresa kontratistak material gehigarria behar dela edo lokalak egokitu behar direla uste badu, enpresa kontratugilearen baimena lortu beharko du. Enpresa kontratistak bere kontura jarriko du material gehigarria edo instalazio berria egokitu. Materiala edo egokitzapena portu-instalazioetan geratuko da, behin kontratua amaitu eta gero.

Era berean, kontratua hasi aurretik, enpresa kontratistari kontratuaren mendeko portu eta kaien planoak eta funtzionamenduari buruzko araudiak emango zaizkio.

Langileek jarraibide eta ohar batzuk bete beharko dituzte, zerbitzuari irudi korporatibo egokia ematen zaiola eta zerbitzua eraginkortasunez gauzatzen dela ziurtatzeko. Hauek dira jarraibideak:

- Txukuntasuna, garbitasuna eta behar bezalako uniforme eramatea.
- Portuko jarduerarekin lan-harremana duten pertsonen, baita, oro har, zerbitzua ematen den kirol-portuetako erabiltzaileei zein jendeari ere, tratua zuzena ematea.
- Itxura egokia lanpostuan; utzikeria saihestu behar da.
- Zorroztasuna ezarritako arauak betetzean (ustiapen-araudia, kudeaketa-prozedurak, ingurumen-neurriak, laneko segurtasuna eta osasuna, erabiltzaileen segurtasuna eta abar).
- Puntueltasuna.
- Eginkizunak betetzen diren instalazioei, barrutiei eta lan-zentroeiei buruzko edozein informazio ezagutzera ematea debekatuta dago erabat; gauza bera, enpresa kontratugileak garatzen duen jarduerari dagokionez.
- Kontratu honen xede diren langileek ezingo dute lanpostua utzi, arrazoi justifikatuaren kasuan izan ezik; gainera, arrazoi hori enpresa kontratugilearen arduraduneri jakinarazi beharko diete lehenago eta nahiko aurrerapenez. Lanpostu hutsak ezaugarri bereko beste langile batzuekin beteko dira.
- Lanpostuak eta zerbitzuak eskaintzen diren guneak txukun eta garbi mantentzea.
- Oro har, erakunde kontratugilearen irudia kalte dezaketen langileen jarduerak saihestea.

Enpresa kontratugileak enpresa kontratistari eskatu ahal dio bere ustez jarrera edo portaera egokia ez du(t)en langilea(k) ordezkatzeko; hala bada, idatzizko errekerimendua egiten denetik gehienez ere 48 orduko epean egin beharko da ordezkapena.

Kontratu hau gauzatzeko kontratatutako pertsonak ordezkatzeko edo kaleratzeko, enpresa kontratugilearen zuzendaritzaren berariazko adostasuna lortu beharko du enpresa kontratistak. Horretarako, enpresa kontratistak idatziz jakinaraziko dio bere asmoa enpresa kontratugilearen zuzendaritzari eta erabakia justifikatzen duten arrazoiak eta erabakia gauzatzeko data jakinarazi beharko dizkio, halaber.

Pertsona berriak kontratatuzko enpresa kontratugilearen oniritzia lortu beharko da. Horretarako, enpresa kontratistak idatziz jakinaraziko dizkio enpresa kontratugilearen zuzendaritzari kontratatu beharreko pertsonaren profila eta kontratazioaren baldintzak; denbora nahikoaz egin beharko du.

Kontratu honi atxikitako enpresa kontratistako langileek ezin izango dute hirugarrenentzat egin kontratu honen babespean garatzen duten jarduerarekin eta/edo kirol-sektore nautikoarekin erlacionatutako bestelako lanik, dagokien laneko ordutegiaren barruan zein ordutegitik kanpo, modu independentean zein beste enpresa baten bitartez, adibidez: arrantzatzeko edo nabigatzeko ontzien eta trepetxuen zaintza, mantentzea, konponketa, garbiketa; arrantzatzeko edo nabigatzeko materialak edo gaiak alokatzea edo saltzea; ontziak mantentzeko edo konpontzeko ekipoa edo materiala alokatzea edo saltzea eta abar, Euskadiko Kirol Portua SAk espresuki baimendu ez badu behintzat. Bateriaezintasun-egoeran dauden langileak zerbitzutik kendu beharko dira. Euskadiko Kirol Portua SAren zuzendaritza izango da puntu hori arbitratzeko arduradun bakarra, desadostasunik egonez gero.



EKPk hala eskatuz gero, enpresa kontratistak honako hauen kopiak entregatuko ditu: TCak, zerbitzua ematen duten langileen nominak, aseguru-polizak, datuak babesteari buruzko legea betetzen duela adierazten duena, lan-arriskuen prebentzioa, beste edozein eske, epai edo ikuskaritza, kontratua gauzatzearekin zerikusia badu, eta EKPk erreklamatu ostean, kontratu honekin zerikusia duen beste edozein agiri.

9. KLAUSULA. ENPRESA KONTRATUGILEAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATURA EGOKITZEA.

Enpresa kontratistak **enpresa kontratugileak ezarritako kudeaketa-sistema bateratuaren arabera** (kalitatea ISO 9001:2008, ingurumena 14001:2004, gobernatze arduratsua, euskara-plana, berdintasun-plana eta hainbat) emango ditu zerbitzuak; zentzu horretan, kontratu honi atxikitako langile guztiek aipatutako sistemako jarraibideak betetzen dituztela ziurtatuko du.

Horretarako, Euskadiko Kirol Portua SAK zerbitzua behar den bezala garatzeko gidaliburuak, prozedurak, jarraibide teknikoak eta abar emango ditu kontratua hastean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 15a

EUSKADIKO KIROL PORTUA SAren ZUZENDARIA

EDURNE EGAÑA MANTEROLA

I. ERANSKINA

Enpresa kontratistak kontratatutako giza taldeak eskainiko dituen zerbitzuak bi multzotan bereizi dira: Marineltza eta Administrazioa. Era berean, kontratatutako giza talde guztiak koordinatzeko pertsona izendatuko da.

Marineltzaren zerbitzua, aldi berean, bi azpizerbitzutan banatzen da: marinel-harreragilea eta marinel arduraduna.

Marinel-arduradunaren azpizerbitzura esleitutako giza taldeak, zerbitzuaren arabera marinel-harreragilearen zereginak egiteaz gain, honako zeregin gehigarri hauek egingo ditu:

- Marineltzako lanak banatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea.
- Marineltzak kontratua gauzatzeko aplikatu daitezkeen araudia betearaztea.
- Enpresa kontratugileak eskatzen dituen marineltza-zerbitzuari buruzko dokumentuak eta formularioak lantzea eta/edo betetzea.

Marinel-harreragilearen azpizerbitzura esleitutako giza taldeak marineltza eta administrazio zerbitzuei dagozkien zereginak beteko ditu, eskaini beharreko zerbitzuaren beharren arabera.

MARINELTZA:

- Pantalanak eta nasak eta horien elementu guztiak kontserbatzea, garbitzea eta mantentzea.
- Bideak, lorategi-zonak, merkataritza-zona, zona teknikoa, ontzitegia, arrapalak, eskaileak, Kapitaintza, gasolindegia eta horietan guztietan dauden elementuak kontserbatzea, garbitzea eta mantentzea.
- Ur-geruza garbitzea.
- Paper-ontziak eta edukiontziak egunero biltzea.
- Komunak garbitzea. Elementu sanitario guztiak, bai eta zoruak eta paretak ere, garbiketa egoera ezin hobea dutela ziurtatzea. Eta komunitateko kontsumigarriak aldatzeaz arduratzea, beharraren arabera (xaboa, komuneko papera, eskuak lehertzeko paper-zatiak eta abar).
- Ontzietako gelak eta bestelako bulegoak garbitzea eta txukuntzea. Tresna guztiak mantentzea eta kontrolatzea: sokak, estatxak, defentsak, erremintak, linternak eta abar.
- Zona hauek kontrolatzea:
 - Pantalanak / ur-geruza
 - Bulegoa / Kapitaintza
 - Gasolindegia
 - Aparkalekua
 - Zona teknikoa, ontzitegia eta merkataritza-zona
 - Porturako sarrera (Itsasokoa / Lehorrekua)

- Karenatze-eremuaren erabilera kudeatzea (garabia, Travel-lift, euskarriak, arrapala eta abar), kasuan-kasuan dagokion prozeduraren arabera; eta zerbitzuko aginduak betetzea.
- Desordena egoteko edo arazoak egoteko arriskurik ikusiz gero, eskumeneko agintaritzako agenteekin harremanetan jartzeaz eta jakinarazteaz arduratuko dira.
- Portuko zerbitzu-ontziak mantentzea, garbitzea, xukatzea, gainbegiratzea eta ikuskatzea; une oro erabiltzeko prest egongo dira.
- Ontziak eta ibilgailuak zaintzea eta kontrolatzea eta izan daitezkeen gorabeherak konpontzeko esku hartzea.
- Suteen aurkako sistemak, segurtasun-sistemak, kutsaduraren aurkakoak eta abar gainbegiratzea, mantentzea eta horien erabileran trebatzea.
- Makina, tresneria, instalazio eta garraio-elementu guztiak erabiltzea, mantentzea, gainbegiratzea eta zaintzea.
- Sarrera mugatuko zonetan pertsonen kontrolaz arduratzea: kapitaintza, pantalanak, zona teknikoa, karenatze-zona, komunak, gasolindegia eta abar.
- Jendaurreko arreta eta informazioa.
- Erabiltzaileari laguntzea eta gure instalazioak erabiltzean izan daitezkeen arazoak konpontzea.
- Igarotzen diren ontzien harrera eta arreta eta informazioa.
- Etengabeko arreta VHF irratan.
- Laguntza eskaintzea arazoak eta larrialdiak daudenean.
- Barne Araubideko Arautegia eta Poliziarena aplikatzea eta betearaztea, baita portuan aplikatzekoa den beste edozein araudi ere.
- Sarrerako itsasargiak mantentzea eta kontrolatzea.
- Euste-horma zaintzea eta mantentzea.
- Telefonozko arreta.
- Gertakariak erregistratzea.
- Karenatze-zona erabiltzeko erreserbak (garabia, Travelift, euskarriak)
- Ibilgailuak sartzeko langa zaintzea.
- Eguneroko parte meteorologiakoa eta ohartarazpen bereziak.
- Erabiltzaileei ohar garrantzitsuak jakinaraztea.
- Jendearen erreklamazioak, kexak, iradokizunak eta bestelako informazioak jasotzea eta bideratzea.
- Lan-partea ezarritako jarraibideen arabera betetzea.
- Zerbitzugintza behar den bezala eskaintzeko behar den beste edozein zerbitzu.

ADMINISTRAZIOA:

- Jendearentzako arreta.
- Informatika-programa kudeatzea.
- Fakturazioa eta ez ordaintzeak kudeatzea, dagokien prozeduraren arabera.
- Zerbitzuen kobrantzak kudeatzea, dagokien prozeduren arabera.
- Dokumentazioa kudeatzea, dagokion prozeduraren arabera.
- Gasolindegia kudeatzea.
- Kutxa kontrolatzea eta kudeatzea.
- VHF irratiaren arreta.
- Telefonozko arreta.
- Web-orriaren arreta (kontaktuak, eskaerak eta abar).
- Eguneroko parteak gainbegiratzea.
- Soken eta itxarote-zerrenden baimentzea/alokairua kudeatzea, dagokien prozeduraren arabera.
- Plaza eta tarifen informazioa.
- Enpresa-jardueren koordinazioa kudeatzea, dagokion prozeduraren arabera.

- Karenatze-eremuaren erabilera kudeatzea (garabia, Travel-lift, euskarriak, arrapala eta abar), dagokion prozeduraren arabera.
- Ontzi/soken aldaketa kudeatzea, dagokion prozeduraren arabera.
- Igarotzea kudeatzea, dagokion prozeduraren arabera.
- Erosketak kudeatzea, dagokion prozeduraren arabera.
- Gertakariak erregistratzea.
- Objektu galduen liburua eta mezularitza-liburua, mezuak eta abar.
- Ibilgailuak sartzeko langa zaintzea.
- Eguneroko parte meteorologiakoa eta ohartarazpen bereziak.
- Erabiltzaileei ohar garrantzitsuak jakinaraztea.
- Barne Araubideko Arautegia eta Poliziarena aplikatzea eta betearaztea, baita portuan aplikatzekoa den beste edozein araudi ere.
- Jendearen erreklamazioak, kexak, iradokizunak eta bestelako informazioak jasotzea eta bideratzea. - Zerbitzua behar den bezala eskaintzeko beharrezkoa den beste edozein zerbitzu.

TALDEA KOORDINATZEA

Kontratuaren giza taldea koordinatzeko zerbitzuari esleitutako pertsonaren zereginak, besteak beste, hurrengoak izango dira:

- Portu eta dartsena bakoitzean bertan marinel-tza eta administrazio/harrera lanak behar bezala gauzatzen direla kontrolatu eta ikuskatzea. Ikuskaritza bisita programaren bidez egingo da, aldez aurretik zehaztutako data edo maiztasunik gabe eta zereginak aztertuko dira Euskadiko Kirol Portua, S.A. enpresarekin batera ezarritako zerrendaren arabera. Dena den, ikusitako beharrekin bat alda daiteke.
- Enpresa kontratugilearekin kontratua behar bezala gauzatzen dela koordinatzea eta zerbitzuan hobekuntzak iradokitzea.
- Marineltzaren eta administrazio/harreraren langileak kudeatzea, Euskadiko Kirol Portua, S.A. ren eskeen eta agirien arabera zereginak betearazteko, hala nola:
 - Kontratuari atxikitako langileen urteko egutegia egin eta jakinaraztea.
 - Ordutegian, txandetan eta abarrean aldaketak jakinarazi eta enpresa kontratugilearekin koordinatzea.
 - Gorabeherak, erreklamazioak, bisitak, etab. ikuskatu, txostenak egin eta enpresa kontratugilearekin partekatzea, kontratuari atxikitako giza taldeak erregistratu baditu eta arreta eskaini badie.
 - Enpresa kontratugilearekin kontratuari atxikitako giza taldearen prestakuntza koordinatzea.
- Edozein portu edo dartsenatan kontratatutako zerbitzuaren urritasunak eta lan gailurrak edo kolpeak osatu eta sendotzea. Era berean, travel-lift, iragateen harrera eta abarrean laguntza eskaintzea.

EUSKADIKO KIROL PORTUA SAREN ZUZENDARIA

EDURNE EGAÑA MANTEROLA

II. ERANSKINA

- 1. KLAUSULA.** II. ERANSKIN HONEN EDUKIA, XEDEA ETA IRISMENA.
 - 2. KLAUSULA.** KONTRATU HONI ATXIKITAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA PROGRAMA, EKPN ESPERIENTZIAREKIN.
 - 3. KLAUSULA.** LANGILE BERRIEN EDO ERREFORTZUEN PRESTAKUNTZA PROGRAMA, EKPN ESPERIENTZIARIK GABE.
 - 4. KLAUSULA.** II. ERANSKIN HAU GAUZATZEA.
-

- 1. KLAUSULA.** II. ERANSKIN HONEN EDUKIA, XEDEA ETA IRISMENA.

Edukia.

Prestakuntzari buruzko II. ERANSKINEAN kontratuari atxikitako langileei irakatsi behar zaien prestakuntza programa definitzen da, horiek marineltzaren, mantentze-lanen, kontrolaren eta bezeroarekiko arretaren zerbitzuak eskaini behar badituzte honako olgeta dartsenei eta portuei dagozkien portuko instalazioetan: Hondarribia, Molla-Hondarribia, Donostia, Orio, Getaria, Deba, Mutriku, Mundaka, Bermeo, Armintza eta Plentzia, guztiak Euskadiko Kirol Portua, S.A.k kudeatuak.

Eranskinaren xedea.

II. ERANSKIN honen xedea kontratua emateko nahitaezko egitura eta prestakuntza baldintzak definitzea da.

Kontratuaren irismena.

Prestakuntza ekintzak bi multzotan banatzen dira:

- 12-** Kontratu honi atxikitako langileentzat prestakuntza, Euskadiko Kirol Portua, S.A.ren barruan esperientzia badute.
- 13-** Langile berrientzat eta udako errefortzuentzat prestakuntza, Euskadiko Kirol Portua, S.A.n esperientziarik ez badute.

- 2. KLAUSULA.** KONTRATU HONI ATXIKITAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA PROGRAMA, EKPN ESPERIENTZIAREKIN.

Hurrengo prestakuntza programa kontratu honi atxikitako langileentzat oinarrizko prestakuntza da, Euskadiko Kirol Portua, S.A. esperientzia badute. Dena den, kontratu hau gauzatzeko esleitutako giza taldea osatzen duen pertsona bakoitzaren beharren arabera irakatsiko da. Hori urtero aztertu eta erabakiko da enpresa kontratugilearen eta kontratistaren artean, dagokion urteko prestakuntza plana egin baino lehen.

PROGRAMA

1. MODULUA – NAUTIKAKO EZAGUTZAK –

1. NAUTIKAKO NOMENKLATURA
2. SEGURTASUNA
3. PROPULTSIOA
4. ABORDATZEAK PREBENITZEKO NAZIOARTEKO HITZARMENA, ARRADEN, PORTUEN ETA BADIEN ONTZIEI DAGOKIENEAN.
5. BALIZAJEA
6. LEGEDIA
7. IRRATI-KOMUNIKAZIOA

SEGURTASUN ETA NABIGAZIOARI BURUZKO OINARRIZKO PRAKTIKAK:

1. SOKAK MANEATZEA:
2. MANIOBRA HASI AURREKO PRESTAKETAK.
3. ABIARAZI OSTEKO EGIAZTAPENAK.
4. MANIOBRAK DARTSENAN (atoiak).
5. NORABIDE ETA GOBERNU ARAUAK APLIKATZEA

2. MODULUA – LARRIALDIAK -

1. LARRIALDIETARAKO BARNEKO PLANA (LBP) EZAGUTZEA
2. SUTEEN AURKA BORROKATZEA
 - 2.1. PUNTU KRITIKOAK
 - 2.1.1. HORNIGAILUAK
 - 2.1.2. MOTORRA
 - 2.1.3. INSTALAZIO ELEKTRIKOA
 - 2.2. SUA SORTZEARI BURUZKO TEORIA
 - 2.3. SUAREN SAILKAPENA
 - 2.4. ITZALTZEKO MEKANISMOAK
 - 2.5. AGENTE ITZALTZAILEAK
 - 2.6. MAHUKAK
 - 2.7. SAE
 - 2.8. ZUTABE LEHORRA
 - 2.9. UR-HARGUNEAK
 - 2.10. URAREN HORNIDURA SISTEMAK
 - 2.11. BARNEKO SUTEAK
 - 2.12. SUTEEN KONTRAKO SISTEMA FINKOAK
 - 2.13. NORBANAKOAREN BABESERAKO EKIPOAK
 - 2.14. SEGURTASUNA ETA BABESA
3. LEHEN LAGUNTZAK
 - 3.1. NOLA JARDUN LARRIALDIAREN KASUAN
 - 3.2. EHUN BIGUNEN LESIOAK ETA KONORTE GALERAK MANEATZEA
 - 3.3. BIHOTZ-BIRIKA ETA GARUNAREN BIZKORTZEA (BBB); OINARRIZKO PRINTZIPIOAK
4. ATRAKATZEA ETA AINGURATZEA
5. UR BIDEAK, TALKAK ETA EGURALDI TXARRA (PORTUAN)
6. GIZONA URETARA (PORTUKO INSTALAZIOETAN)
7. ATOIAK

LARRIALDIETARAKO OINARRIZKO JARDUNAK:

1. SU-ITZALGAILU ERAMANGARRIAK ERABILTZEA
2. MAHUKAK ETA SUE-AK ERABILTZEA
3. ARNASKETA ARTIFIZIALERAKO TEKNIKAK
4. BIHOTZ MASAJERAKO TEKNIKAK
5. PANTALANETAN ETA DARTSENAN: ATRAKATZEAK ETA AINGURAKETAK EGIAZTATZEA (SOKAK JARTZEA, TENTSIOAK BANATZEA, AINGURAKETA PRESTATZEA)
6. BUXADURAK, TURAFAILAK, DEFENTSAK, ZIPOTZAK
7. UR PONPA ERABILI ETA MANEIAZTEA
8. UREAN BIKTIMAK BERRESKURATZEA TEKNIKA DESBERDINAK ERABILIZ, ERRESKATE ONTZITIK ETA LEHORRETIK
9. ATOIAK (BRANKA, POPA ETA ALBOTIK)

3. MODULUA – KIROL NAUTIKAREN SEKTOREAN LAN ARRISKUAK PREBENITZEA.

1. LAN ARRISKUAK PREBENITZEKO LEGEA
2. KIROL NAUTIKAREN SEKTOREAN PREBENTZIOA
 - 2.1. SEKTOREAREN ERREGULAZIOA
 - 2.2. SEKTOREAREN DESKRIKAPENA
 - 2.3. ERAGIKETAK EDOTA JARDUERAK DESKRIKATZEA
 - 2.3.1. ONTZITEGIA
 - 2.3.2. MANTENTZEA ETA KONPONTZEA
 - 2.3.3. ISTRIPUEN KODEAK
 - 2.4. LAN ARRISKU OROKORRAK
 - 2.5. ONTZIETAN AZTERKETAK EGITEA (1434/1999 ED)
 - 2.6. LANTOKIAK (ONTZIEI EZ-APLIKAGARRIA)
 - 2.7. INSTALAZIOAK ETA EKIPUAK
 - 2.8. SEGURTASUN SEINALEZTAPENA
 - 2.9. KARGAK MANIPULATZEA
 - 2.10. LARRIALDIKO NEURRIAK

JARDUNAK PREBENTZIOAN.

1. LAP SIMULATZEA

4. MODULUA –KALITATEA ETA INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAK

1. KALITATEA ETA INGURUMENA KUDEATZEKO ISO SISTEMAK AURKEZTEA
2. ENPRESAREN (PORTUAK) PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK
3. FUNTZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK
4. BEZEROARI ARRETA ESKAINTZEKO JOKABIDEAK

PRAKTIKAK

1. TALDEKO DINAMIKAK (LANGILEA-BEZEROA)

5 MODULUA - PORTUKO JARDUERA-

- 1.- ZND MARINELAREN ZEREGINA
- 2.- FUNTZIOAK ETA ZEREGINAK
 - 2.1.- MARINELTZAREN ZEREGINAK ETA MANTENTZE-LANAK EGITEA.
 - 2.2.- EKIPO ELEKTRIKOAK MANTENDU ETA MANEATZEA.
 - 2.3.- ITURGINTZA.
 - 2.4.- INGELES ETA FRANTSES NAUTIKOAREN OINARRIZKO EZAGUTZAK

PRAKTIKAK:

1. EKIPO ELEKTRIKOAK MANEATZEA ETA ITURGINTZA
2. INGELESEZ ETA FRANTSESEZ KOMUNIKAZIOAK SIMULATZEA

6. MODULUA – ONTZITEGIA KUDEATZEA -

1. ONTZITEGIAN ESPAZIOAK BANATZEA ETA ERRENTAGARRI BIHURTZEA

3. KLAUSULA. LANGILE BERRIEN EDO ERREFORTZUEN PRESTAKUNTZA PROGRAMA, EUSKADIKO KIROL PORTUA, S.A.N ESPERIENTZIARIK GABE.

Euskadiko Kirol Portua, S.A. ren zuzendaritzak hautagai berriaren curriculumaren arabera bere prestakuntza beharrak zehaztuko ditu.

Ondoren, kontratu berria hasi baino lehen egin beharreko prestakuntza mota definituko du. Xede horrez, II. ERANSKIN honetako 3. eta 4. klausuletan azaldutako prestakuntza programak kontuan hartuko dira.

PROGRAMA

5 MODULUA - PORTUKO JARDUERA-

**MODULUAREN GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA: 8 ordu / Teoria: 5 /
Praktika: 3**

- 1.- ZND MARINELAREN ZEREGINA
- 2.- FUNTZIOAK ETA ZEREGINAK
 - 2.1.- IRRATI-KOMUNIKAZIOA
 - 2.2.- ATRAKATZE ETA DESATRAKATZE MANIOBRETAN LAGUNTZEA
 - 2.3.- UR ETA ARGI KONTAGAILUAK IRAKURTZEA
 - 2.4.- UR, ELEKTRIZITATE, TF, TELE ETA ABARREN KONEXIOA
 - 2.5.- AMARRATZE POSTUAK ANTOLATU ETA KONTROLATZEA
 - 2.6.- ERRESERBARIK GABEKO ONTZIAK HARTZEA
 - 2.7.- AMARATZE POSTUAK ALDIZKA BERRAZTERTZEA
 - 2.8.- GAUEKO LANGILEAK, PORTUAREN ERANTZUKIZUNA
 - 2.9.- CHECK-LIST. EGUNEROKO PARTEA
 - 2.10.- MARINELTZA ZEREGINAK GAUZATZEA
 - 2.11.- INSTALAZIOETAN ETA ONTZIETAN IKUSKARITZA TXANDA
 - 2.12.- HONDAKINAK GAIKA ERRETIRATZEA
 - 2.13.- MANTENTZE LANAK EGITEA
 - 2.14.- MARINELTZA MATERIALAREN INBENTARIOA
 - 2.15.- LAN MATERIALAREN ERABILERA ONA

- 2.16.- AMARRAK EGITEA
- 2.17.- ZENBAIT MATERIAL BILTEGIRATU ETA ZAMATZEA
- 2.18.- INSTALAZIOETARA SARRERAK ZAINDU ETA KONTROLATZEA
- 2.19.- ERREGAIAREN HORNIDURA ETA HARRERA
- 2.20.- ERREGAIA KOBRATU ETA FAKTURATZEA
- 2.21.- ADMINISTRAZIOARI TIKETAK ETA ESKUDIRUA ORDAINTZEA
- 2.22.- SEGURTASUN ARAUDIA BETETZEA
- 2.23.- LARRIALDIETAN LAGUNTZA ESKAINTZEA
- 2.24.- EDOZEIN GORABEHERA AZKAR JAKINARAZTEA
- 2.25.- ESTROPADELAN ETA BESTELAKO KIROL EKITALDIETAN LAGUNTZEA
- 2.26.- GORABEHERAK ETA HORIEN PARTEAK EBAZTEA
- 2.27.- INGELES ETA FRANTSES NAUTIKOAREN OINARRIZKO EZAGUTZAK
- 2.28.- EKIPO ELEKTRIKOAK MANTENDU ETA MANEIAZTEA.
- 2.29.- ITURGINTZA.

PRAKTIKAK:

- 1. EKIPO ELEKTRIKOAK MANEIAZTEA ETA ITURGINTZA
- 2. INGELESEZ ETA FRANTSESEZ KOMUNIKAZIOAK SIMULATZEA

6. MODULUA – ONTZITEGIA KUDEATZEA -

MODULUAREN GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA: 4 ordu / Teoria: 2 /

Praktika: 2

- 1. ONTZITEGIAN ESPAZIOAK BANATZEA ETA ERRENTAGARRI BIHURTZEA
- 2. ONTZITEGIKO OINARRIZKO TRESNAK
- 3. LAN EREMUA ETA GARBIKETA EREMUA
- 4. ONTZITEGIAREN ZERBITZUAK
- 5. AIRE KONPRIMATUA EKOIZTEA
- 6. BABES ETA SEGURTASUN NEURRIAK
- 7. LANTEGIA MANTENDU ETA GARBITZEA
- 8. MAKINAK, TRESNAK ETA OSAGARRIAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK
- 9. ONTZITEGIAN MATERIALEN SAILA ANTOLATZEA
- 10. IZAKINAK BALIOZTATZEA ETA INBENTARIOAREN METODOAK
- 11. PLANOAK, TXANTILOIAK ETA EKOIZPEN AGIRIAK

4. KLAUSULA. II. ERANSKIN HAU GAUZATZEA.

Kontratatik bere kargura dituen langileen prestakuntza programa bete beharko du, urtero enpresa kontratugilearekin adosten dituen baldintzen arabera eta II. ERANSKIN honek xedatutakoan oinarrituta.

Kontratu honek irauten duen bitartean lanpostu batean sartzen diren langile guztiek II. ERANSKINEAN ezarritako oinarritzko prestakuntza jasoko dute, enpresa kontratugileak eta kontratatik adosten duten epean eta moduan.

EUSKADIKO KIROL PORTUETAKO ZUZENDARIA

EDURNE EGAÑA MANTEROLA